

Política

Justicia

Internacional

Iberoamérica

Sociedad

Salud

Comunicados

Lenguas

Empleo

Extremadura

 Espacios
 de
 Innovación
 VALENCIA
 GALICIA


Destacados



Sociedad de la información


 endesa
 Te Ofrece
 Canal Energía

VIAGES



 Te Ofrece
 Canal Turismo

 Te ofrece
 Canal Deportes

 CAJA MADRID
 Te ofrece
 La Cultura

Euskera

EUSKADI.-Maider Lopez artista donostiarak 'Ataskoa' izeneko auto-ilara erraldoi bati argazkiak atera nahi dizkio Intzan

DONOSTIA, 2 Sep. (EUROPA PRESS) -

Maider Lopez artista donostiararen proposamen berria 'Ataskoa' izeneko jai-giroko deialdi publiko bat egitean datza irailaren 18an jendea bere autoekin Intzara hurbildu dadin goizeko 11,00etan, helburua auto-ilara bat sortzea izango delarik eta beroni argazkiak ateratzea, aditzera eman dute ekimenaren antolatzaileek gaur Donostin.

Normalean halakorik gertatzen ez den lekuan, mendiaren bihotzean gure eguneroko bizitzan ohikoa den egoera bat bere testuingurutik atera eta berrirakurketa bat ahalbideratzea da Maider Lopezek bilatzen duena.

Intza izan da aukeratutako lekua, Nafarroa eta Gipuzkoa artean dagoen leku idilikoa baita, Beteluren ondoan kokatua, Donostiatik 45 kilometrotara. Bertan, berdegunea da nagusi, zenbait baserritara iristeko adarkatzen den norabide bakarreko pista txiki batean salbu. Pista hori autoz bete nahi dute 'Ataskoa'ko arduradunek, familiako kide baino auto gehiago dagoen txango familiar horietako batean bezala. Proiektuaren argazkiak aterako dira eta Artium museoa izango dira ikusgai.

Azken batean, "zentzugabeko ekintza bat da, autoaren erabileraz, ekologiaz, hiriaz edo landaz, eta abarrez zer pentsatua emango diguna", adierazten dute antolatzaileek, hori guztia estetika ikuspuntutik begiratuta egingo delarik.

Ataskoaren deialdia leloa argia da: "Zu zeu, zure lagunak eta bakoitza bere autoarekin". Eta proiektua gauzatzeko honela labor daitekeen deialdia egingo dute 'Ataskoa'tik: "mendian atasko bat egiteko zure laguntza behar dugu. Zu zeu, zure lagunak eta zuen autoak behar ditugu, proiektu artistiko berezi batean parte hartzeko eta ondo pasatzeko gogoz. Zuek parte hartzera animatzeko eta eguna girotzeko guztiontzat herri bazkaria egongo da, eta, gainera, gidariei itzalkin bana eta ataskoaren argazki bana oparituko" dizkiete.

Hala ere, 150 autorentzat besterik ez dago lekua, nahi duenak izena eman dezakelarik joan aurretik. Horretarako, 'Ataskoa' ekimeneko arduradunekin harremanetan jar daiteke ekimenak griña pistu dionari, bai posta elektronikoz (ataskoa@amaste.com) edo telefono zenbaki hauetara deituz: 943 444 672 / 687 559 011.

AUTO PROIEKTUA

'Ataskoa' ekintza "Proyecto coches" izeneko egitasmo zabalago baten barnean dago. Proiektu horretan, Maider Lopezek autoari eta hiriari buruz gogoeta egitea proposatzen du eta horretarako, autoa erabiltzeak eguneroko bizitzan sortzen dituen egoera bereziak nabarmentzea bilatzen du.

"Proyecto coche"sen autoa protagonista duten hiru egoera paradoxiko aipatzen dira: alde batetik, ataskoa bera, bestetik, gure inguruan gelditzen diren arautu gabeko aparkaleku ia iraungietatik argazki ibilbide bat, eta azkenik, Gasteizko aparkaleku batean egindako esku-hartzea.

Gasteizko Artiumen, urriaren 19tik aurrera ikusi ahal izango da 'Ataskoa' ekimenaren emaitza. Horrez gain, ESETÉ aldizkariaren "En doble fila" izenburuko zenbaki bat, gorpil gaineko zineman asteburu bat, eta eztabaida jardunaldi batzuk biltzen ditu. Hori guztia autoa-hiria binomioa eta horren inguruan dagoena disezionatzeko.

"Proyecto coches" Maider Lopez artistaren proposamena da, Arteleku-Gipuzkoako Foru Aldundiak, Artiumek eta AMASTEK batera ekoiztua, Eusko Jauriaritzako Kultura Sailaren eta Kultura Ministerioaren laguntzarekin. 'Ataskoa'k Intzako Kontzejuaren, Coca-Cola-ren eta El Diario Vasco-ren babesa ere badu.

NOR DA MAIDER LOPEZ?

Maider López (Donostia, 1975) gaur egungo artean lanean diharduten gazte promes kontsolidatuetakoa bat da. Hori baieztatzeko nahikoa da esatea, aurtten, Veneziako Bienal-eko artista gazteena dela.

Orain arteko bere ibilbidea laburtzeko, esan daiteke Arte Ederren lizentziaduna dela Euskal Herriko Unibertsitatean, Londresko Chelsea College of Art and Design-en master bat eskuratu zuela eta gero Arkitekturan doktoretza hasi zuela.

Artelekun ere sorkuntza lana egin du, hainbat banakako eta taldekako erakusketa egin ditu (La Casa Encendida, Pontevedrako Bienal, Madrid Abierto, ARCO, Galería DV, Galería Distrito4, Galería Max Estrella, Canal Isabel II, Muestra de Arte Joven...) eta baita zenbait beka jaso ere (Generación 2002, Nueva Yorkeko ISCPn Injuve beka edo Botín Fundazioaren Arte Plastikoetako beka).

Maider Lopezen lana espazioan esku-hartzearekin lotuta egon da beti; hasieran, espazio kodeak eta kolore kodeak erabiltzen zituen batez ere, eta, gerora, gehiago landu ditu espazio sozial eta arkitektonikoaren erabilera arauen eta ohituren konnotazioak.

Bere proiektuetan beti proposatzen dizkio "joko" txikiak eta egoera bereziak ikusleari; hala, benetan denaren eta itxuraz ematen duenaren artean desberdintzeko aldarrian jartzen du hura. Ia bere lan guztien lotura-ildo gisa kolorea erabiltzen du Maiderrek. Ateak margotzen hasi zen, gero horma faltsuak, metakrilatozko mahaiak, aulkiak eta lanparak ere egin izan ditu, leihotarako estalkiak, zirkulazio seinaleekin jolastu izan da, kirol kantxetako lerroak birplanteatu zituen behin, bere erakusketa zegoen galeriaren atariko sabaia konpondu ere egin zuen, eszenatokiak egin izan ditu, hainbat eraikin neurtu, zoruak oholeztatu...

"Proyecto coche"sen, bere lanean lehen aldiz, ikuslea ez da "jokoan" sartuko amaieran, hau da, erakusketan; ohartuta edo oharkabean, prozesu guztian zehar oinarrizko elementu aktibo izango da, Intzako auto-ilararako deialdira joanez, argazkia aterako zaien aparkalekuetan aparkatuz, eta abar. Parte-hartzailea eta bere autoa protagonistak izango dira eta haien esku egongo da, neurri handi batean, proiektuaren arrakasta.

© 2005 Europa Press. Está expresamente prohibida la redistribución y la redifusión de todo o parte de los servicios de Europa Press sin su previo y expri